

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea**

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea erabaki zuen.

Udal Ogasuna arautzen duen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten dugu hasierako onetsitako zerga-ordenantzaren aldaketaren espediente osoa udal bulegoetan duzuela ikusgai; horrela, interesdunek espedientea azter dezaten eta hogeita hamar eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Agerian uzten da, erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, jendaurreko epea igaro ondoren, behin betikotzat hartuko dela.

Halaber, interesdunen eskura egongo da, udalaren web gunean: [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus).

Ondategin, 2020ko ekainaren 22an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*